


# WEISHEIT

**M**IKELA An̄oni oso samindurik zetorren, bere astochuen gañian, baserritik goizian eramantako esne, arrautza, aza, lechu eta beste zenbait gauza saldu ondorian.



## ECHE ALDERA

Ignacia de Calparsoro». Ez bada, nai badu beti, izango da «Mañasi de Orpo-zikiñ».

Eta bere atsekabe eta samintasunak, ez ziran, biar baño merkiago saldu zitu-belako eramantakogauzak. ¡Bai zera!

Mikela An̄oni-k egin zuben egon aldi chiki bat Kabana-n, eta an erakutzi ziyoten *orpo zikiñeneko* alaba *Mañasi* Amerika-tik bigaldutala antzeztu.

*Mañasi* ura zala esatiak ere, bere kontuak ditu: neska sistrin, arlote, markarrosa ura, pirlin-parpaz apainduba, eta buruban otarra baño aundiagoko zapel kiškurrez betetakukin. ¡Ikusteko guztiak ez ditugu oraindik ikusi! zion Mikela An̄oni-k errabiz lertzeko zoriyan. Izena ere chandatu du, ara zer jar-tzen duben oñian: «Maria eta nai ez badu, orain eta

¡Ezkondu egin dala! Ez zekaten zeñekin eskondu aundirik. ¡Padera-ren ondua baño itsusiyagoko neska!

Echera irichi zanian, errabiyaren indarrez, bere begi beltz ederretatik, malko batzubek isuri zizaizkan Mikela Anñoni-ri.

Aita-ren aurrian arrek esan zituben gauzak, eziñ esan alakuak dira. Orpo-zikiñenekua baño guchiyago ez zan ura, ez zegon gau ta egun lannian jarduntzeko, eta Ameriketara joan biar zuben ikusi zezaten ango gizasemiak, Mañasi ez bezelako neskachak bazirala Euskal-erriyan.

Nai zuben guziya esaten laja ziyon aitak, eta isildu zanian eraman zuben bere gelara, eta erakutzi ziyon iitze ordoitu batetik zintzilik zegon paper gorritu bat.

\*  
\* \* \*

Urriak semazkiyen Mikela Antoni-ren echian paper arrek.

Kanpotar batek aspaldi lajia zan.

Paper artan ageri zan gizon zar bizar luze bat, legoya aldamenian zeukala, beste aldian iruzkiyen sortzea bi chorrerkin eta goyen itz au: *Weisheit*.

Makiñabat buru auste eman zizkatena, izan zan paper ura. ¿Zer esan nai zuben? ¡ñork ez zekiye!

Ardotegi-tik ateragabe zegon mutill galbai batek, esan ziyoten *Weisheit* ardo on baten izena zala. Uñiatu zuten, ardua bezterik buruban tazabelian ez zeukala esan ondorian.

Ontan ikusi zuben atzo erdi sorgiñ alako batek, batzuben iritziyan gaberdi aldera erratza gañian ibiltzen zanak, eta beriala oju egiñ zuben:

—Badakit nik, paper onek zer esan nai duben.

—¿Zer bada?



*Maria Ignacia de Calpiarsoro*

—Gizon ori Aitor da.

—¿Aitor?


—Bai, Aitor. ¿Ez dezu ikusten bizar luzia dubela?

—¿Eta bizar luze guztiak, Aitor aldira? Nik entzun niyon aitonari, atabal-nagusiyak (*tanbor-mayorrak*) bizar luziak izaten zirala.

—Zer atabal-nagusi ta zer chanfaina. Ori Aitor da. Eskubetan daukan paper luziak jakinduria esan nai du eta legoyak indarra. Aitor-ek ikusten ditu bere semeak Ameriketara dijoazela eta laja egiten diote.

—¿Eta ortarako alditu jakinduria eta indarra?

—Ichogon zazu. Lagatzen diote; baña beren etorkizunen berri chori ayen bitartez jakin ondorian. Etorkizuna : or goyen idatzia dagon



*Weisheit*-ek zer esan nai duben jakin etd dutenentzat, izango da ederre-netakua; aberaztasun eta zorionez beterik biziko dira. Ez badakite *Weisheit*-ek zer esan nai duben galdubak dira.

Mikela An̄toni-ri gertaera au guziya gogoratu ondorian, esan ziyon azkenik bere aitak:

Badakin orain: Ameriketara juateko *Weisheit*-ek zer esan nai duben jakin biar den.

\*  
\* \*

Mikela An̄toni oso ez bazan erotu ere, beste guziyak erotutzeko tankeran, jarri zan. Izen naspill ura ezin burutik bota zuben.

Beti izen arreakiñ nastutuba zegon, eta bein baño geyagotan entzun ziyoten elizan, errosariyua erresatzerakuan, *or po nois*- en ordez *Weisheit* esaten.

Prejitzen jartzen zan *Orpo-zikiñeko*- tzaz gogoratze utsabin. ¿Bañan nondik zekiyen Mañasi, mandu arrek, *Weisheit*- ek zer esan nai duben? Ori ziyon ordu guziyetan Mikela Anñoni-k, eta orrek ematen ziyon izugarrizko buru austea.

Eta erria, eta prejituba, eta egoziya; erriko jende guziyakin asarre zan, eta bere burubarekin ere bai. Inork ezin ikusi; danak arren ondolik alde, bastanga balu bezela; egun gorriyak etorri zitzaizkan Mikela Anñoni gajuari.

Era ontan, egunak juan eta urtiak igaro, neskazar amorratuen ichura artu zuen: ortz ustelak abuan, zimurrak arpegiyan eta ille zuriyak buruban; eta alare begi beltz, ederrak izandu ayen aurrian, gau ta egun zeukan itz gogoangarri ura: *Weisheit*.

Bazan erriyan mutil gazte bat, buru azkarra, euskal zale pizkor eta berotsua, ikazle gogorra, billatzen zituben paper zar guziak goitik bera eta betik gora irakurri biar zitubena, eta arrek askatu zuben ainbeste urtian Mikela Anñoni-ren estarriya itotzeko zoriyan estutzen zuben korapillua.

—*Weisheit*- ek esan nai du *biska*; eta Ameriketan bezela Euskal-errian ere, neskacha eskondu nai dubenak, *biska* izan biar du.

Ala itz egin zuben gazte arrek, eta neska gajuak entzun zubenian ura, arpegiya gorde bere eskubakin, eta negarrez luan zan echeko zoko batera.

¡*Biska!* Mikela Anñonik bere biziyan izan ez zubena.

¡Neskach ederra izatia ez da askotan azki!

A. DARRA

